


## **BALIO-PROPOSAMENA**

- Proiektu honen balioa unibertsitate gradu bat ikasi nahi duen edozein pertsonari aukeraketa horretan laguntzea da, eta horretarako Euskal Herriko unibertsitate guztiei buruzko informazioa laburbilduko dugu, dauden gradu ezberdinak ezberdindu, batez besteko notak aipatuz.... Azken finean, gure helburua jendea laguntzea da.
- Bezeroek gure enpresa aukeratuko dute eta erabiliko dute beste enpresen artean webgune bat ere izango baitugu eta pertsona guztientzako (nerabeentzako, pertsona helduentzako, desgaitasun bat duten pertsonentzako etab.) erabilpen erraza izango baitu. Azken finean, gure webgunea eta aplikazioa gure bezeroek dituzten unibertsitateari buruzko zalantza guztiak argitzeko gai izango dira. Gure helburua bere etorkizuna argi izan dezaten da.
- Beste aldetik lehiakideengatik bereizteko hainbat balio proposamen ditugu:
  - **Berritasuna:** Gure enpresaren ideia guztiz berria da. Euskal Herri mailan ez dago guk eskaintzen dugun bezalako aplikaziorik, edo antzekorik. Guk eskaintzen duguna oso erabilgarria eta berria da.
  - **Prestazioak:** Gure bezeroei unibertsitateei buruzko behar duten informazio guztia ematen diegu. Gure eskaintza guztiz konpletoa da: webgune orri bat dugu eta hor informazio osoa aurkituko dute eta hortaz aparte, aplikazio bat izango dugu mugikorrean edo tabletan dohainik instalatu ahal izango dena. Gainera, telefono zenbaki eta e-mail bat izango dugu eskuragarri gure bezeroentzako arreta zuzen bezala.



→ **Pertsonalizazioa:** gure enpresak kontuan hartuko ditu bezero bakoitzaren nahiak eta beharrak eta informazioa moldatuta egongo da bakoitzerako. Hau da, lehenik eta behin bokaziozko test bat egiteko aukera egongo da, gustuko gradua zein izango den jakin ahal izateko. Atera zizun unibertsitateko gradua zuretzako akordeena dela pentsatzen baduzu, gradua Euskal Herriko zein unibertsitateetan burutu



ahal duzun esango dizu, publikoak eta pribatuak. Publikoan gradu horretan sartu ahal izateko gutxieneko nota zein den adierazten dizu. Behin unibertsitatea aukeratuta urte bakoitzean zein ikasgai eta zenbat kreditu dituen adieraziko da.

Bestalde, oso garrantzitsua den beste gauza bat ere aurkitu ahal izango da aplikazioan, hau da, ikasleak herritik/bizilekutik atera behar izaten du nahi duena ikasteko, unibertsitate etxetik urrun egoten baita. Gure aplikazioak, beraz, unibertsitate inguruan dauden egoitzen informazioa ere bilduko du.

→ **Lana erraztea:** Pertsonalizazioan aipatu dugun bezala graduaren aukeraketa guztiz errazten dugu, bakarrik zuri interesatzen zaizkizun gauzak aukeratu behar dituzu, gainerakoa guk egingo dugu.

→ **Diseinua:** Web orriaren eta aplikazioaren diseinuak erabilera errazekoak izango dira, bezero guztiek arazorik gabe erabili ahal izateko. Diseinu praktikoa du.



→ **Prezioa:** Unichoose enpresaren webgunea eta aplikazioaren erabilpena guztiz dohainik izango da. Bestalde, hauek erabiltzean iragarkiak agertuko egingo dira, ikusi nahi ez badituzu hilabetero 2€ ordaintzeko aukera izango duzu.